



## **AKTA-ZK.: 3/2017**

2017ko maiatzaren 12an, 10:00etan, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura** egina da, Gasteizen, deialdia aurretiaz behar bezala egin ondoren. Jarraian datoz zehazturik bertan izan diren kideak eta gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.
2. 2017-000024 esp. ebazteko proposamena.
3. 2017-000038 esp. ebazteko proposamena.
4. Galde-eskeak.

### **BATZORDEBURUA:**

Javier Bikandi Irazabal.

### **KIDEAK:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino.

Ana Arkotxa Azkue.

### **IDAZKARIA:**

Ana Arkotxa Azkue.

### **1.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.**

2017ko martxoaren 8ko bilerako akta irakurri dugu, ahobatez onartu dugu, eta bertaratuen esku utzi dugu, sina dezaten.

### **2.- 2017-000024 esp. ebazteko proposamena.**

Batzordeburuak, jarraian, proposamena dakarren kideari eman dio hitza. Aztertu dute batzorde-kideek, eta erabaki dute idazketa-aldaketa batzuk egitea eta onartzea, ahobatez, batzordearen 8/2017 Ebazpen modura.

### **3.- 2017-000038 esp. ebazteko proposamena.**

Batzordeburuak, jarraian, proposamena dakarren kideari hitza eman, proposamen hori batzorde-kideek aztertu, eta aho batez onartu da, batzordearen 9/2017 Ebazpen modura.

### **4.- Galde-eskeak.**

Kideek hala eskatuta, gai hauek aztertu ditugu: jarraipena egitea ea batzordearen ebazpenak betetzen diren; web orriaren edukia zuzentzea; ebazpenak Arartekora bidaltzea; eta 2017/000039 erreklamazioa izapidetzea.



---

Batzordeburuak adierazi du oraindik ez dela Gobernu Kontseiluan izapidetu batzordekideen ordainsaria zehazteko akordio-proposamena, eta hala egin behar dela batzordearen sorrera arautzen duen dekretuko 2.2 artikulua araberan.

Besterik ezean, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du, 10:45ean.

**Idazkaria**  
**Ana Arkotxa**

**Batzordeburua**  
**Javier Bikandi.**

**Kidea**  
**Koldobike Uriarte**